

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko martxoaren 30etik apirilaren 4rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/03/30 (Jarraipena)

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA**

- **Alarma egoera. Ostatu turistikoak.** - TMA/305/2020 Agindua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen den martxoaren 23ko TMA/277/2020 Aginduaren eranskina, zeinaren bidez oinarrizko zerbitzu deklaratzaren diren zenbait ostatu turistiko, eta zeinaren bidez xedapen gehigarriak ematen diren. [2020-4194 xedapena - 12 or.](#)
- **Alarma egoera. Bidaiarien garraioa.** - TMA/306/2020 Agindua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez argibideak ematen diren bidaiarien garraio-zerbitzuak murrizteari buruz, 10/2020 Errege Lege-dekretuak indarrean jarraitzen duen bitartean. [2020-4195 xedapena - 2 or.](#)

- **OSASUN MINISTERIOA. Alarma egoera. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua.** - SND/307/2020 Agindua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen diren martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege-dekretua aplikatzeko interpretazio-irizpideak, eta egoitzaren eta lantokiaren arteko beharrezko joan-etorriak errazteko erantzukizunpeko adierazpenaren eredua. [2020-4196 xedapena - 3 or.](#)

2020/03/31

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.**
- Alarma egoera. Aire-garraioa.

- Ebazpena, 2020ko martxoaren 27koa, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen diren Kanariar Uhartediko aire-ibilbideetan aire-garraioaren zerbitzua emateko baldintzak eta zeinaren bidez zerbitzua esleitzen den, COVID-19a dela-eta deklaraturako alarma egoerak irauten duen bitartean. [2020-4198 xedapena - 3 or.](#)

- Ebazpena, 2020ko martxoaren 27koa, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den Palma-Menorca eta Palma-Eivissa arteko aire-ibilbideetako aire-garraioaren zerbitzuaren iraupena eta zeinaren bidez luzatzen den zerbitzuaren esleipena, COVID-19a dela-eta deklaraturako alarma egoerak irauten duen bitartean. [2020-4199 xedapena - 3 or.](#)

2020/04/01

• ESTATUKO BURUZAGITZA

- **Alarma egoera. Premiazko neurriak.** - 11/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez premiazko neurri osagarriak hartzen diren gizartearen eta ekonomiaren esparruan, COVID-19ari aurre egiteko. [2020-4208 xedapena - 88 or.](#)
- **Alarma egoera. Genero indarkeria.** - 12/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 31koa, genero indarkeriaren biktimei babesa eta laguntza emateko premiazko neurriei buruzkoa. [2020-4209 xedapena - 8 or.](#)

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.**
- **Alarma egoera. Premiazko neurriak.** - TMA/309/2020 Agindua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez aldatzen den TMA/258/2020 Agindua, martxoaren 19koa, zeinaren bidez xedapenak ematen diren itsas administrazioaren administrazio-tituluen eta ikuskaritza-jardueren gainean, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren babesean, zeinaren bidez alarma egoera deklaritzen den, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko. [2020-4210 xedapena - 3 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.** - **Alarma egoera. Oinarrizko zerbitzuak.** - SND/310/2020 Agindua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez oinarrizko zerbitzu deklaritzen diren zenbait osasun zentro, zerbitzu eta establezimendu. [2020-4211 xedapena - 4 or.](#)

2020/04/02

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.**
- Alarma egoera. Trenbideen sektorea. TMA/311/2020 Agindua, apirilaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak ezartzen diren trenbide-ibilgailuen mantentze-lanak kudeatzeko, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren aurrean. [2020-4231 xedapena - 4 or.](#)

2020/04/03

- **BARNE MINISTERIOA**

- **Alarma egoera. Armak eta lehergailuak.** - INT/316/2020 Agindua, apirilaren 2koa, zeinaren bidez neurriak ezartzen diren armen, segurtasun pribatuko langileen tiro-ariketen, salgai piroteknikoen eta kartutxoan, eta lehergaien alorrean, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aplikatuta, zeinaren bidez alarma egoera deklaratzeko, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko. [2020-4259 xedapena - 3 or.](#)
- **Alarma egoera. Ibilgailuen titulartasuna.** - INT/317/2020 Agindua, apirilaren 2koa, zeinaren bidez garatzen den COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko asmoz alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, ibilgailu jakinen matrikulazioaren eta titulartasun-aldaketaren alorrean. [2020-4260 xedapena - 3 or.](#)

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA**

- **Alarma egoera. Ezohiko neurriak.** - TMA/318/2020 Agindua, apirilaren 2koa, zeinaren bidez ezohiko neurriak ezartzen diren azaroaren 5eko FOM/2872/2010 Aginduaren aplikazioan, makinisten gaikuntzei dagokienez, COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean. [2020-4261 xedapena - 2 or.](#)
- **Alarma egoera. Lurreko garraiobideak.** - Ebazpena, 2020ko apirilaren 2koa, Lurreko Garraiobideen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argibideak ematen diren lurreko garraiobideen esparruan maskarak banatzeko. [2020-4262 xedapena - 5 or.](#)

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA**

- **Erreferentziazko lonjak.** - 427/2020 Errege Dekretua, martxoaren 3koa, zeinaren bidez eskakizunak eta prozedura ezartzen diren nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen lonjak eta horien elkarteak "erreferentziazko lonja" deklaratzeko eta zeinaren bidez sortzen den Erreferentziazko lonjen eta horien elkartearen Erregistro Nazionala. [2020-4263 xedapena - 8 or.](#)

- **Fruta-arbolen haztegietako mintegi-landareak. Erregelamendua.** - 428/2020 Errege Dekretua, martxoaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen den 929/1995 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, zeinaren bidez onesten den fruta-arbolen haztegietako mintegi-landareen kontrolerako eta egiaztapenerako erregelamendu teknikoa, biderkatze-materialen eta zuhaitz-landareen etiketaren koloreari dagokionez eta hornitzailearen dokumentuaren edukari dagokionez. [2020-4264 xedapena - 12 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA. - Alarma egoera. Premiazko neurriak.** - SND/319/2020 Agindua, apirilaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen den SND/232/2020 Agindua, martxoaren 15ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen diren giza baliabideen eta bitartekoen alorrean, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudatzeko. [2020-4265 xedapena - 4 or.](#)

2020/04/04

- **OSASUN MINISTERIOA. - Alarma egoera. Gizarte eta osasun neurriak.** - SND/322/2020 Agindua, apirilaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen diren SND/275/2020 Agindua, martxoaren 23koa, eta SND/295/2020 Agindua, martxoaren 26koa, eta zeinaren bidez ezartzen diren COVID-19ak eragindako osasun krisiaren esparruan gizarte eta osasun alorreko premiazko beharrezaneiei erantzuteko neurri berriak. [2020-4300 xedapena - 6 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/03/31

- **INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.** - 46/2020 DEKRETUA, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen. [1744 xedapena - 21 or.](#)

2020/04/01

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.** - 44/2020 DEKRETUA, martxoaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko Dekretua aldatzen duena. [1756 xedapena - 16 or.](#)

- **OSASUN SAILA.** - AGINDUA, 2020ko martxoaren 27koa, Osasuneko sailburuarena, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan eta martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduan jasotako neurriak zabaldu eta interpretatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen eremuko egoitza-zentro publiko eta pribatu guztietan aplika daitezen, eta agindu horiek garatzeko esku-hartze neurriak hartzekoa. [1758 xedapena – 4 or.](#)

2020/04/02

- **INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.** - AGINDUA, 2020ko martxoaren 31koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen arloan Covid-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak. [1771 xedapena – 6 or.](#)
- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.** - AGINDUA, 2020ko martxoaren 26koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, bostehun milioi euroko Euskadiko zor publikoa jaulkitzeko eta eragiketa horren ezaugarriak zehazteko dena. [1772 xedapena – 2 or.](#)

2020/04/03

- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.** - 50/2020 DEKRETUA, martxoaren 31koa, enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2020ko programa garatzen duena, Covid-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko. [1792 xedapena – 18 or.](#)
- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA**
 - AGINDUA, 2020ko martxoaren 15koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren funtsezko zerbitzuei buruzkoa. [1793 xedapena – 8 or.](#)
 - AGINDUA, 2020ko martxoaren 24koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren funtsezko zerbitzuei buruz sailburu berak eman zuen 2020ko martxoaren 15eko Agindua aldatzen duena. [1794 xedapena – 2 or.](#)
- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.** - AGINDUA, 2020ko apirilaren 1koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena. Horren bidez argitaratzen da martxoaren 31ko 50/2020 Dekretuan arautzen den enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntza emateko programaren deialdia, Covid-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko. [1796 xedapena – 4 or.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/04/01

- **OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA.**
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, martxoaren 24koa. Onestea Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara. [2020 - 939 xedapena - 7 or.](#)
 - 151/2020 Foru Agindua, martxoaren 24koa, onesten dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2019ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko arauak eta modalitateak. [2020 - 938 xedapena - 4 or.](#)

2020/04/03

- **KANTAUURIKO URKIDETZA.** - 036/220 Dekretua, martxoaren 23koa, Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoko lehendakariarena, presako zerga eta administrazio neurriak onesten dituen COVID-19ren ekonomia eraginari aurre egiteko. [2020 - 953 xedapena - 3 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/04/01

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 685/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 26koa. Honen bidez, Foru-Agindu hauek aldatzen dira: batetik, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren martxoaren 5eko 541/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez pertsona fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2019ko zergaldiko autolikidaziorako 100 eredu onesten den, bai eta eredu horren aurkezpen telematikoa egiteko prozedura ere. Eta, bestetik, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren martxoaren 5eko 540/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez Ondarearen gaineko Zergaren 2019ko zergaldiko autolikidaziorako 714 eredu onesten den, bai eta eredu horren aurkezpen telematikoa egiteko prozedura ere. [2020-063 \(I-257\) xedapena - 2 or.](#)

2020/04/02

- **OGASUN ETA FINANTZAN SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 707/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 1ekoa. Honen bidez, COVID-19 birusak eragindako osasun-larrialdiaren egoeraren ondorioz, autolikidazioak edo aitortpenak aurkezteko epea luzatzen zaie ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsonei, mikroenpresei eta enpresa txikiei. [2020-064\(I-260\) xedapena -2or.](#)

2020/04/03

- **OGASUN ETA FINANTZAN SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 716/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 1ekoa. Honen bidez, jakinarazpen telematikoaren arloko salbuespenezko arauak ezartzen dira, aplikatu ahal izateko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean (COVID-19ren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoa) jasotako presazko neurriak. [2020-065 \(I-262\) xedapena - 3 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/03/31

- **GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA.** - 477/2020 Foru Agindua, martxoaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren adinekoentzako zentroetan, bere erakunde autonomoetan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako zentroetan koronabirus bidezko pandemiaren ondorioz (Covid-19) sortutako zaintzaile-beharrei erantzuteko lan-poltsa bat sortzeko deialdi publikoa egiten duena. [\(6 or.\)](#)
- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA**
 - 246/2020 Foru Agindua, martxoaren 13koa, tutoretzapean eta zaintza egoeran dauden adintxikikoek haien jatorrizko familiekin eta ahaideekin edukiditza keten bisita-erregimenen eta kontaktuen baldintzak ezartzen dituen. [\(3 or.\)](#)
 - 249/2020 Foru Agindua, martxoaren 16koa, aldi baterako eteten dituen tutoretzapean eta zaintza egoeran dauden adintxikikoek haien jatorrizko familiekin eta ahaideekin eduki ditzaketen bisita-erregimen eta kontaktuen baldintzak, eta zaintzaren arloan baimendutako beste hainbat jarduketa. [\(2 or.\)](#)

2020/04/01

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 134/2020 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, Balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa aurkezteko 189 eredua onartzen duen martxoaren 5eko 91/2020 Foru Agindua aldatzen duena. [\(1 or.\)](#)

2020/04/02

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 136/2020 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa, Covid-19aren ondorioz zergapeko jakin batzuentzat hiru hilabeteko autolikidazioak eta aitorten ez-aldizkako, informatibo eta laburtzaileak aurkeztu eta ordaintzeko epea zabaltzen duena. [\(2 or.\)](#)

2020/04/03

- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** - 287/2020 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, foru eskumeneko egoitzetako erabiltzaileak eta zentroen sareko laguntza duten etxebizitzetan bizi direnak etxera itzultzeko programa ezartzen duena, mendekotasun eta/edo desgaitasun egoeran dauden pertsonen zuzendutakoa, Covid-19ak eragindako alarma egoerak irauten duen bitartean; zehazki, laguntza teknikoak eta ekonomikoak dira. [\(5 or.\)](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/03/31

- 2020/466 Betearazpen Erregelamendua (UE), 2020ko martxoaren 30eko Kontseiluarena, zeinaren bidez ezartzen diren gizakien, animalien eta landareen osasunerako arriskuei eusteko eta animalien ongizatea bermatzeko aldi baterako neurriak, koronabirus (COVID-19) gaixotasunaren ondorioz Estatu kideen kontrol-sistemen disfuntzio larri zehatzek irauten duten bitartean). [L 98/30](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO